berriak
Triforio -tik

105. Zkia.
2022ko maiatza

araba álava



Aste Santua **bete-bete**

Aste Santuko jaiegunetan izandako bisitek, hilaren 15ean (ostirala) eta 16an (larunbata) batez ere, aurreikusitako gehieneko edukiera lortu zuten, eta, ondorioz, "ez dago sarrerarik" kartela jarri behar izan zen, pandemia hasi zenetik lehen aldiz. Zifra altu horiek agerian uzten dute, berriro ere, "Obretan eta Irekita" programaren erakargarritasuna eta familiako eta gertuko turismoan duen erreferentziazko posizioa.

Bisitarien kopurua oso handia izan zen apirilaren 11tik (astelehena) 18ra (astelehena) bitartean, ikasleen oporren hasierarekin batera. Guztira, zortzi egun horietan 4.200 pertsona baino gehiago hurbildu ziren Katedralera, hau da, programaren harrera-ahalmenaren mugatik oso gertu.

Izan ere, hilaren 15ean (ostirala) eta 16an (larunbata), bisita-zentroko arduradunek 700 pertsona jaso zituzten egunero, eta hori da zerbitzuaren segurtasuna eta kalitatea bermatzeko ezarritako gehieneko kopurua.

Bisitari gehienak beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritakoak ziren, eta, ohi bezala, bisitari gehienak Madrilgoak, Kataluniakoak, Valentziakoak eta Andaluziakoak izan ziren. Halaber, ondoko lurraldeetatik ere jende asko etorri zen: Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Nafarroatik.

Kanpoko turismoari dagokionez ere gora egin dute bisitek, baina ez dira barruko turismoaren zifretara iritsi. Kasu honetan, bisita gehienek bisita-programaren nazioarteko merkatu nagusia bihurtu den Frantzian zuten jatorria.

Aterpetxeko jarduera

Turisten etorrerak aterpetxean ere izan zuen isla, hainbat erromes-talde hartu baitzituen jai egun horietan. Aipatzekoa da garai hartan Aterpetxeak hogeita hamar bat errefuxiatu ukrainar hartzen zituela, eta horrek esperientziak eta bizipenak partekatzeko topaketa-giroa sortzen lagundu zuela.

"Adrianus VI Pontifex"-en aurkezpena

Adriano VI.a Aita Santua izendatu zutenetik 500 urte bete direla ospatzeko ekitaldien aurkezpena egin zen Arte Sakratuaren Museoan. Hurrengo jarduera maiatzaren 18an izango da, "Adriano VI. Irudiak eta isiltasunak" hitzaldia. Jesús María González de Zarate EHUko Arte Modernoaren Historiako katedradunak emango du. (Europa Jauregia. 19:30ean)



“Poetak Maiatzean”, Santa Mariako elizpean

Santa Maria Katedralak Gasteizko “Poetak Maiatzean” Nazioarteko Poesia Jaialdiaren bi errezitaldi hartuko ditu aurten. Lehenengoa ostiralean, hilak 6, izango da, eta Luis García Montero Granadako poeta eta Cervantes Institutuko egungo zuzendaria izango da protagonista. “Habitaciones separadas” eta “La intimidad de la serpiente” lanen egileak 20:00etan hasiko du emanaldia.

Ostiralean, hilak 27, 19:00etan, “Oscuridad y Luz” emanaldiaren txanda izango da. Hiru emakumek, gorrak hiruak, Cristina Campok, Zuriñe Aguinagak eta Ainhoa Ruiz de Angulok, zeinu lengoaian antzeztutako poesia ikuskizuna eskainiko dute. Bi emanaldiak doakoak eta sarrera librekoak izango dira, edukiera bete arte.



Bestalde, eta Jaialdi horren barruan, astelehenean, hilak 21, 2017an Musikaren Sari Nazionala eta 2020an “Intemperie” abestiarengatik Jatorrizko Abesti Onenaren Goya saria jaso zituen Javier Ruibal kantautoreak kontzertua eskainiko du Argiaren Elizpean 20:00etan. Kontzertu horretarako informazioa eta sarreren salmenta www.abiertoporconcierto.eus webgunean egongo da eskuragarri.



Kontzertuak José Mardones elkartearekin

Santa Maria Katedrala Fundazioak José Mardones Arabako Musikaren eta Arte Eszenikoen Elkarte Soziokulturalarekin elkarlanean dihardu “Kontzertuan eta Irekita” ekimena antolatzeko. Maiatzean zehar izango da, eta Arabako hainbat jatorri eta estilotako artistak eta musika-taldeak sustatzea du helburu. Egitarauak bi kontzertu jasoko ditu Katedralaren elizpean, baita maiatzaren 6an, ostiralean, Buruileria Plazan egingo den eta Vital Fundazioaren babesa duen “Udaberriko Jaia” deiturikoa ere. Lehenengo kontzertua ostiralean, hilak 13, izango da, eta “La Cloche” taldeak emango du; bigarrena, berriz, ostiralean izango da, hilak 20, eta Kepa Aguirre eta Melodika Ensemble elkartuko ditu agertokian. Bi emanaldiak 19:30ean hasiko dira.



Abesbatzak ekainean itzuliko dira

Katedrala ekainean irekiko da berriro Arabako abesbatzentzat. Arabako Abesbatzen Federazioarekin elkarlanean eta Laboral Kutxaren babesarekin, bost emanaldi programatu dira, ehunka ahotsez eta errepertorio zabalaz gozatzeko. Guztira, bost emanaldi egingo dira ekainaren 3an, 17an eta 21ean, eta uztailaren 1ean eta 8an. Emanaldi bakoitza 19:45ean hasiko da elizpean. Sarreren erosketari buruzko informazioa Katedralaren Fundatzaileen Zirkuluko bazkideek gonbidapenak jaso ditzakete kontzertu egunaren aurreko astelehen eta asteartean, Bisitarien Zentroan (Santa Maria Kantoia, 3). Sarrerak asteazkenetik aurrera egongo dira eskuragarri publikoarentzat.

Egitaraua:

Ekainak 3
Lautada, Amalur, Ausartak eta Tantak

Ekainak 17
Nurat, Urkanta, Bi Hotsak eta Ahots Argiak

Ekainak 24
Oskarbi, Canta Cantorum, Maiora Canemus eta Samaniego

Uztailak 1
Haritz Hostoa, Arantzabela, Atempo eta Florida

Uztailak 8
Badaia, Manuel Iradier, Mairu eta Kataliturri